

## MEMORIA GORRIA

Ispilua asmatu zuenak ederra izan behar zuen derrigor, polita ez denak ez du polita ez dela ikusteko ezer asmatzen. Gazterik hil izana espero dut, bere asmakizunaren tranpan erori aurretik, eta urteek itsusitutako bere isla zaharkituarekin sekula topo egin ez izana.

Egiak kontatzen baititu ispiluak, egi borobilak, politak, zahartuak edo itsusiak; baina beti egiak. Niri goizero kontatzen dizkit aurpegiko zimurrak, eta beti kontatzen du gaur atzo baino bat gehiago. Zenbatzen ahaztuko zaion eguna desiatzen dut begiratzen diodan bakoitzean, eta bitartean begiak itxi, eta denboran atzera egiten dut ispilukoari noizbait ederra izan nintzela gogorarazteko. Urteak dira begiak itxita begiratzen diodala ispiluari.

Tokadore gainean jarraitzen du hortz okerreko orrazi zaharrak, eskura beti, ia zer orrazturik geratzen ez zaion arren. Sedazkoak diruditen hari bakan batzuk baino ez dute irauten nire buru gainean, orraziarekin laztantzeko ahulegiak. Zaila da, ordea, errealitatera errenditzea, mahai gainean alferrik dagoen orrazia kaxoian gorde, eta zahartzaroari baietz esatea. Gure ama zenak galdutako ileak zimur bihurtzen zirela zioen. Baliteke, eta badaezpada behatzekin kontu handiz ordenatu ditut ile bakanak.

Enegarren aldiz blusa lisatu berriak zimurrik ez duela frogatu, eta perla faltsudun koilare zuria zintzilikatu dut lepotik. Ederrago sentitzeko modu bakarra da. Larrosa usainez hezetu ditut eskumuturrak eta koilare ingurua. Eskuin eskuak erre egiten dit, eta atzo ontziak garbitzen ebaki egin nintzela gogoratu dut. Alfer-alferrik saiatu naiz beste eskuarekin zauri gaineko lurrina kentzen.

Ez du hotzik egiten, baina badaezpada puntuzko jertse urdina hartu dut besoan, haize aldakorra dabil azken egunotan. Diru-zorroan behar beste dagoen ikusi, eta ahaztu aurretik poltsan sartu dut, behe-behean, sakon-sakonean, asmo txarreko eskuluzeen

begiradatik urrun. Ispiluan azken-aurreko begiratu bat, eta ilunpetan utzi dut logela larrosa usainetan.

Egongelako atearen zirrikitutik telebistako dokumentalaren ahots aspertua ateratzen da. Eskuineko begiaz zirrikitua zelatatu, eta Laxaro ikusi dut larruzko besaulkian enkajatuta begiak itxita telebistari begira. Isilik atearen zirrikitua handitu dut begiradarekin Eider topatu arte sofa luzean etzanda. Siesta begiak dauzka. Eskuarekin keinu egin diot, eta irribarre ia behartu eta keinu ia lokartu batekin erantzun dit telebistako lehoiak antilope odoleztatua irensten duen bitartean.

Sarrerako ispiluan azken begiraturua, azken hasperena, eta atea poliki ireki, eta polikiago itxi dut inor ez molestatzeko. Itxi orduko etxeko lurra sumatu dut ezkaratzetik. Salataria da egurrezko zoru zaharra. Eider imajinatzen dut behatxulotik begira, ama baldartuak eskailerak barandari ondo helduta jaisten dituen zelatatzen. Utziz gero besoetan hartuta jaitsiko ninduke beheraino. Utziz gero ez nintzen etxetik irtengo katarroaren, udazkeneko gripearen edo haize hotzaren aitzakian. Utziz gero eguna ohean pasako nuke ezer egin gabe, hilda bezala, baina bizirik.

Pazientziaz jaitsi ditut lehen eskailerak alabaren lasaitasunerako baranda esajeratuki helduz. Egunetik egunera gorago bizi naizela ematen du, beherainoko bidea hain egiten zait luzea. Baliteke oharkabean Jainkoarengandik gero eta gertuago egotea bizitza galtzen noan heinean; nork daki.

Badira bi hilabete minbiziaren diagnostikoa baieztatu zigutela. Ni lur jota atera nintzen kontsultatik; alboan Eider lur azpitik burua atera ezinda. Besotik helduta eraman ninduen autoraino, baina helduta joateko bere arima itxuragabetuak nire ibilkera baldarrak baino behar handiagoa zuen.

Oroitzen dut elkarri hitzik egin gabe joan ginela etxeraino, biok ere nahiko lan

arnasa hartzen. Semaforo gorri bakoitzeko ezpainetan ez, baina buruan juramentuak bueltaka zebilzkion, begi urduritu haietan irakurtzen nizkion. Sendagileak niri emandako iraungitze-datak bizitzeko presa berari areagotu ziola zirudien. Ezerk ez nau pazientzia ezak beste ernegatzen, eta kopilotuaren eserlekutik semaforo bakoitzero “ni hilko naiz ez zu” esateko gogoia gogoratzen dut. Zorionez isilik egotea lortu nuen.

Leihoa nuen ihesbide bakar koko usaina zerion auto estresagarri hartan. Begiak kristaletik hogeita hamar zentimetrora, eta begirada kristaletik oso urrun, infinituan, eternitatean, hogeita hamar zentimetro baino gehiagora. Kongsultara sartu aurretik susmatzen genuen esango zigutena, sei hilabetetarako bizitza baino zerbait gehiago espero bagenuen ere. Baina susmoak beti dira susmo, eta nahi gabe beti uzten dute esperantzarako zirrikitu txikiren bat egiak zaplastekoa eman bitartean. Gero dator inozo sentitu eta negar egitearena.

Marixuren katuarekin egin dut topo lehen solairuan. Inbidiaz begiratu diot, nik ere nahi nituzkeelako zazpi bizitza. Laxarorekin konpartitzeko zazpi bizitza; zazpi beretzat, eta zazpi niretzat. Baina inori eskatzen hasteko hamalau bizitza gehiegi dira, eta eskaileretan behera jarraitu dut nire bizitza bakarrarekin; bizitza motela, bizitza gogogabetua, bizitza hiltzen hasia.

Gutunontzien parean geldialdia egin dut kalera irten aurretik. Listua irentsi, arnasa sakon hartu, begiak ondo zabaldu, eta airearekin begietan pilatutako malkoak lehortu ditut erortzeko aukerarik eman gabe. Beti galdetu izan diot nire buruari begietatik salto egiten ez duten malkoak negarraren parte ote diren. Gorputzak berriz xurgatu, eta kanporatuak izateko une aproposago baten zain irudikatzen ditut ilaran, negar egiteko une aproposak existitzen direla sinetsita.

Poltsa gorputzera indarrez estutu, eta pausoa azkartu dut. Kalea zapaldu orduko

haize fina nire zimurrak orrazten sentitu dut. Lepoaldeko nire larrosa fragantzia lapurtzen ere ahalegindu da. Hirugarren pausoan ezkaratzeko ate sendoa itxi dela entzun dut, lehen bosgarren pausoan ixten zen beti; bi pauso motelagoa naiz dagoeneko.

Gelditu gabe pasa naiz Patxiren frutadenda paretik, Eugeniren arraindegitik, eta Ritaren ezkaratzetik. Ez dut inorekin hitz egiteko gogorik, eta zuzenean joan naiz kale izkineko kafetegira. Kristalaren bestaldetik ezagunik ez dagoela begiratu dut lehenengo, eta arima nekatu honentzat lekurik badagoen gero. Aukera askorik gabe, hutsik ikusi dudana mahai bakarrean eseri naiz. Kafesne beroa eta txokolatzeko palmera gozo horietako bat eskatu ditut.

Aspaldiko lagunak besarkatzen diren irrika berdinarekin lapurtu diot palmerari lehendabiziko hozkada. Uste bezain gozoa egin zait, eta bigarren bat ostu diot lehenengoa ezarririk pasa orduko. Nire patua hau zela jakin izan banu horrelako gehiago dastatuko nituzkeen. Bizitza erdia kolesterolarekin borrokan minbiziak jota hiltzeko.

Kafetegiko beroak eta zalapartak logura eragin didate, belarrietatik burura, eta burutik begietara. Betazal bakoitzak pare bat kilo hartu ditu, jendearen ahotsa urrutiratu egin da, eta burua burbuila batean harrapatuta sentitzen dut. Heriotza horrelako zerbait izango ote den pentsatu dut, eta badaezpada lehenbailehen bueltatu naiz kafetegiko mahaira. Zalapartak hartu nau berriz, bizitzak: kafe makina esnea berotzen, goilarak azukrea nahasten, meriendatu nahi ez duten haurrak purrustadaka, eta kafesnea ketan.

Alboko mahaian jubilatuta bikotea dago tea hartzen. Egunkari bana dute eskuetan, gizonetzkoak kirolak, emakumezkoak eskelak. Noizbehinka hil berriaren izena eta urteak aipatzen dizkio senarrari ezaguna egiten zaion argazkia identifikatzen lagun diezaion. Gizonak betaurrekoen gainetik ateratzen den begirada batekin erantzuten dio interes handirik gabe.

Nire eskela irudikatu dut lehen aldiz. Zalantza egin dut argazkia neronek aukeratu behar nukeen edo norberak egiteko zeregin makabroegia den. Gustora galdetuko nioke norbaiti, baina okurritzen zaizkidan izen guztiak hilda daude. Kafesne zorabiatua gehiago zorabiatu, eta katilua ezpainetara hurbildu dut bi eskuekin helduta. Ahaztuta nuen kafearen zaporea, orain te berdea dago modan.

Bakardadean sabela beteta mahai gainean utzi dut katilu erdi betea. Bost euroko billetea eskuan hurbildu naiz barrara, eta kobratzeko keinua egin diot gazte lanpetuari. “*Bat larogeita hamar*” esan dit nahiko lehor, eta lehortasun berdinarekin utzi diot billetea barra gainean. Buelako txaponekin batera gorde dut tiketa karteran. Berak ez dit eskerrik eman, eta nik ez dut agurtu.

Aurreko zerbitzariak oroitu naiz kalerako bidean, ez zen emakume jatorra, baina bai jatorragoa. Egia esan ez zait gehiegi axola, kafetegi honetara sartzen naizen azken aldia izango da ziurrenik. Kafea ere azken aldiz probatu ote dudan pentsatu dut orduan, eta inoiz txokolatzeko palmerarik dastatuko ote dudan berriz. Ziurrenik ez. Hotzikara batek hartu nau. Haize errugabeari errua egotzi, eta puntuzko jertsea bizkar gainean jarri behar izan dut.

Halaxe joan naiz tximaluzearen musika dendaraino. Enkargatutakoa hartu, ordaindu, eta presaka atera naiz kalera musika ozenegitik ihesi. Ahaleginak egin ditut diska poltsan sartu ahal izateko, eta sartzea bai, baina kreamailera ixtea ez dut lortu. Estuago hartu behar izan dut poltsa gorputzaren kontra.

Uberri parkeraino iritsi naiz, eta bertako banku batean hartu dut atsedean. Behar nuen. Poltsa itxi gabea ireki, eta diska atera dut: *Simon and Garfunkel. Wednesday Morning, 3 A.M.* Pasa dira urte batzuk ordutik. Plastikozko poltsa zuria ere banku gainera atera, eta atzoko ogi zaharra hartu dut bertatik. Zatika bota diet ahate iskanbilatsuei,

gustatzen zait nola haserretzen diren ikustea.

Laxarori ere gustatzen zaio leku hau, lehen orain baino gehiago. Orain zaindutako lore koloretsuak dauzka, iturriak, urmael garbiak, bi astean behin moztutako belar berdea, banku zuri pintatu berriak, eta zakarrontziak. Orain jendez gainezka egoten da. Garai batean, ordea, sastraka, zuhaitz erori eta adar puskatuen itzala baino ez zen, gure gisako bikote gazteontzat paradisua. Gatozenero oroitzen ditugu sekretuzko maitasun gau haiek, azkenaldian nahi baino gutxiagotan.

Konpainiarik gabe etortzea ez zait gustatzen. Bankua luzeegia da niretzat bakarrik, eta alboan norbait falta dudala gogorarazten dit. Haserretu egiten naiz, nola haserretu gainera, erruz. Norekin haserretzen naizen jakitea bakarrik falta zait beti.

Zeruaren lehen tanta lodiekin batera iritsi naiz etxera. Giltza sarrailan sartzerako janari usainak bete dizkit sudurzuloak. Korridorera atera da Eider:

- Oheratu egin dut, ama. Egun txarra du gaur. Hozkailuan zenituen lekak prest utzi dizkizut, eta biharko dilistak uretan jarri dizkizut. Jabi eta txikiena noa.
- Bai, bai, zoaz lasai. Ez zenuen ezer egin beharrik.
- Jan egin behar duzu. Aitak hartu ditu botikak, ez ahaztu zureak. Bihar pasako dizkizut hautsak egongelan.
- Zoaz lasai, nik egingo dut egin beharrekoa.
- Deskantsatu egin behar duzu, ama. Bihar etorriko naiz, eta hitz egingo dugu, norbait behar duzue etxean.

Buruarekin baietz egin diot, eta masailean musu emanda joan da. Etsituta, menderatuta, akabatuta zeharkatu dut korridorea loredun alfonbrak markatutako bidetik. Bada hiltzera kondentatua izatea baino okerragorik: pixkanaka hiltzera kondentatua izatea.

Lekak hotzgailuan sartu, eta armairutik nire pilulak hartu ditut: kaxa urdinetik bi, zurigorritik baten erdia, eta letra moreak dituen kaxatik bakarra. Banan-banan irentsi ditut ur trago baten laguntzaz. “Hiltzeko bizi” esaten zuen lehen Laxarok ezagunen batekin topatzen ginen aldiro, eta hau bai dela hiltzeko bizi.

Korridoreko argiaz lagunduta erdi ilunpetan sartu naiz gure gelara. Lo dago Laxaro, edo hori pentsatzea nahi du behintzat. Armairutik gurinezko pasta garestien kaxa gorria atera, eta sukaldeko mahaiaren gainera eraman dut. Aurrean eseri, eta zabaldu orduko larrosa usaina sumatu dut. Plastikozko poltsa batetik atzoko ogi zaharra atera, eta gaurko barratik moztutako zati batekin ordezkatu dut. Itxi aurretik kaxan sartu ditut kafetegiko tiketa, eta diska ere, koloretako sugusen gainean.

Ogi zaharra zaborretara bota, eta berriz itzuli naiz logelara latoizko kaxa eskuan. Larrosa usaineko perfumez ziprztindu ditut beste behin barruko paperak, eta igandetako arropen ondoan gorde dut. Astiro itxi dut armairuko atea. Laxaroren ondoan etzan naiz. Nekatuta sentitzen naiz, hiltzen, baina uste dut ez naizela gaur hilko. Berearen gainean jarri dut nire eskua, eta indarrez estutu dut azaleko zimur bakoitza sentitzeraino.

Berak ere estutu nau, berak ere sentitu ditu nireak. Lo jarraitzen duen begiratu dut, eta begiak itxita dauzka, baina zirrikitu batetik malko batek ihes egin dio. Estuago hartu dut, eta estuago hartu nau. Nirea jakin genuenetik bere gaixotasunak okerrera egin du, eta jada ez dakit noiz ez duen gogoratzen, eta noiz ez duen gogoratu nahi. Ez diot errurik botatzen, nik ere gustora ahaztuko nuke bizitza ahal banu.

Hirurogehita hamalaua izango da nire azken urtebetetzea lehenago joaten ez banaiz. Ordurako prest egongo da kaxa gorria, ni hiltzen naizenean ni hil nadin, eta ez ni eta bere oroitzapenak. Hiltzen naizen egunean ni hilobiratzeko jantzirik onenen bila hasten direnean aurkituko dituzte bere oroitzapenak, txukun, ordenatuta, eta larrosa usainetan,

noizbehinka nire presentzia usain dezan.

Bizitzaz oroitzen denetan gogora dezan latoizko kaxa gorrian etortzen diren gurinezko gailetak gustatzen zaizkiola, ez bestelakoak. Diska jarri, eta gogora dezan gaztetan dantza egiten zuela; bai, nirekin. Kafetegiko tiketari begira merienda ordurako kafesnea eta txokolatzeko palmera gustatzen zaizkiola gogoratzeko; edo sugusak, igandetan bilobei eskukada bat emateaz oroitu dadin. Afaritan sobratutako ogi zati zaharra gure parkeaz ahaztu ez dadin. Eta ezkontza argazki zaharragoa, hari begira behin bizitza osoa elkarrekin konpartitzea erabaki genuela gogoratu dezan, osasunean eta gaixotasunean. Eta alboan minbizia diagnostikatu zidateneko sendagileen txostena, beste ezeren gainetik bere ondotik behartuta joan nintzela oroitzeko.

Goitizena: MIN